



### Lana / La obra

*Proleterka* nobela labur eta bitxi honetan, kontalariak oso dosi txikietan aletzen du nerabezaroan egindako itsas bidaia bat, oroimenak lausotzen hasteko aski denbora izan duenean, berrogeita hamar urte beteta hain zuzen.

Nabarmena da liburuan, lehen lerrotik hasita, heriotzak, eta bereziki suizidioak, hartzen duten nagusitasuna. Hala ere, zalapartarik gabe aipatzen dira, espanturik gabe.

Bidaia inizatiko baten narrazioa ere bada *Proleterka*, itsasontzian doan neskaren lehen sexu-esperientziak azalduko dizkiguna, ontzi zarpail samar bateko kamaroteko giro itogarrian eta modu bortitz samarrean gauzatuak.

*Eros* eta *Thanatos*, beraz: eroen ontzia bere nora ezean daramaten bi arraunak. Horretara murrizten du emakume narratzaileak bizitza. Ez dago aitaren bilaketarik, ez aita hil beharrik: bizia berez doa, eroen itsasontzia bailitzan, portu batetik bestera, geldialdi laburrak eginez han eta hemen, azken portura iritsi arte.

### Fitxa teknikoak / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Proleterka**

Egilea / Autor: **Fleur Jaeggy**

Saila / Colección: Literatura Unibertsala, 174

ISBN / EAN: 978-84-9109-261-2

Salneurria / Precio: 11 € (BEZ barne – IVA incluido)

Orri kopurua / N° páginas: 120

Formatua / Formato: 13 x 19,5 cm

### Egilea / El autor

**Fleur Jaeggy** (Zürich, 1940). Italiaraz idazten duen idazle suitzarra. Zenbait liburu ditu idatziak, horien artean nabarmenezkoak: *I Beati anni del castigo* (Zigorren urte ederrak) eta *Proleterka* (2001, *Times Literary Supplement*ek nobela hoberenaren saria emana 2003an). Itzultzailea ere bada, eta Marcel Schwob-en eta Thomas de Quincey-ren obrak itzuli ditu italiarara.

### Itzultzaileak / Traductores

**Miren Iriarte Oyaga** (Iruñea, 1978). Kazetaritzan lizentziaduna eta Itzulpengintzan masterduna. Elena Ferranteren lhesi doana eta gelditzen dena itzuli du. Iruñeko Udalean ari da itzultzaile eta interprete.

**Fernando Rey Escalera** (Iruñea, 1961). Medikuntzan eta Kirurgian lizentziaduna. Nafarroako Gobernuan dabil itzultzaile. Hainbat itzulpen literario ditu argitaratuak, besteak beste, idazle hauenak: Conan Doyle, J. Neruda, N. Ginzburg, Milena Agus, A. Tabucchi, Y. Kemal, B. Hrabal, O. Pamuk, A. Camilleri, E. Ferrante.

